

Uxue Iruretagoiena Andres

A maila • 1 aipamena

Nire izena Uxue Iruretagoiena Andres da eta Zaldibia izenez ezagutzen den Goierriko herri txiki batean bizi naiz 17 urte nituenetik. Aurten, nire batxilergoko lehenengo urtea egiten ari naiz Jakintza Ikastolan.

Zaletasun ugari ditut, hala nola, musika, kirola, artea eta nola ez idaztea. Betidanik izan dut gustuko azken hori, hizkiekin jolastuz hamaika istorio sortzeko aukera eduki dezakedalako. Nire sei bertsoek zahartzaroari buruz dihardute, polita, baina era berean gogorra den garai horri buruz, hain zuzen ere.



Doinua: Gure aurreko guraso zaharra

ZAHARTZAROA

1.

Erregina bat bezalakoa
naiz nire tronu txikian,
egongelaren erdian aurki
dezakedan besaulkian.
Denbora-pasa telebista dut
eguneroko tokian,
berri guztien mezularia
mundu osoan espian,
etxetik irten ere egin gabe
belarria dut guztian.

2.

Laurogeita bost urteen zama
sentitzen dut gaur gainera,
gaztetasun nahiz bizitasuna
agortu ziren batera.
Bizi guztian luze ta gogor
lanean nik jardutera,
zertarako ta pentsio ziztrin
bat izateko amaiera,
askatasuna erdietsi ta
truku nire akabera.

3.

Isiltasuna nabaritzen dut
egunero inguruan,
malkar ilunan nire oihartzuna
itotzen barru-barruan.
Bakardadeak izan ohi ditun
gorabeherak kontuan,
hobeto egongo nintzateke ni
urdin gozo den zeruan,
maite ditudan ta galdutako
guztiekin deskantsuan.

4.

Bizitzan zehar izan ditudan
estakuruak zuzendu,
artegatasun ta arrangurak
bestalde nahi nik aldendu.
Igarotako memento latzak
burutik betiko kendu,
ta oroitzapen gozo guztiak
besten gainetik gailendu,
horrela nire barrenak lortu
dezake bai bere dendu.

5.

Denbora geldi ezina dugu
gaixotasunen antzera,
etsai horrekin borrokatuz nik
egin izan dut aurrera.
Baina pixkana hedatuz doa
nire kontrola hartzera,
ixten dijoa garunan atek
joanez ahanzte bidera,
azkenerako nire izatea
ezabatuko ote da?

6.

Bihotz taupada erritmikoak
geroz eta xumeago,
nire patua iguriki ta
bistan da ageriago.
Begia laino txuri batekin
lausotzen hasia dago,
hemendik urrun dut begirada
mundu hontatik haratago,
heriotzaren belagilea
bila dator ta akabo.